



B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

# Cristóbal Balenciaga, Moda eta Ondarea

MARTXOA 24/2018  
URTARRILA 27/2019

# B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

# Cristóbal Balenciaga, Moda eta Ondarea Elkarrizketa bat

Modaren eta Ondarearen artean badago elkarrizketa paradoxiko bat. Bertan, iragankorra eta iraunkorra kontra-jartzen dira; unean-uneko indarraldia duena eta balioa iraganetik hartzen duena jartzen ditu parez pare. Cristóbal Balenciagaren kasuan, baina, bi horien arteko elkarrizketan bat egiten dute biek.

Balenciaga berrogeita hamabi urtez (1917–1969) aritu zen jardunean sortzaile gisa bere Etxeen buru, eta, bide horretan, lekukotza ugari utzi zituen, bai materialak zein immaterialak. Museoa duela bost urte ingurutik ari da bilduma egiten, zaintzen, ikertzen eta erakusten. Modaren alorreko kideek, prentsa espezializatuak edota modaren historiako adituek sarri lotzen dute haren obra honako kontzeptu hauekin: iraunkortasuna, zehaztasuna, bikaintasuna edo abangoardismoa. Ezaugarri horiek egin zuten Balenciaga bere garaian ere jostun garrantzitsua izatea, eta horiei esker da gaur egungo modan ere erreferentzia.

Baina, zer ekarpen egin zuen Cristóbal Balenciagak? Zerk bereizten du? Zerk egiten du iraultzaile, atemporal eta artistiko? Zergatik da ondarea bere obra eta moda? Galdera horiei buruzko hausnarketa bultzatu eta ikusleen artean eztabaida sortu nahi da, erakusketaren diskurtso kronologikoaren bitartez.

Gainera, Cristóbal Balenciaga Museoak Judith Clarkekin egindako elkarrizketa ireki baten moduan antolatu du erakusketa hau. Clark, museologoa, komisarioa eta erakusketen sortzailea izateaz gainera, London College of Fashioneko Moda eta Museologia irakaslea da. Elkarrizketa horretan, erakusketaren antolaeratik eratorritako bigarren diskurtso implizitu bat dago; izan ere, edukiak antolatzeke modu horrekin, batetik, balioa eman nahi zaio museoetan egiten den lanari –askotan ikusezina izaten da bisitariarentzat–, eta, bestetik, aitortu nahi da aurreko erakusketei esker Cristóbal Balenciagaren figuraren gainean sortu den ezagutza eta erreferente estetiko gisa egindako ekarpena.

MARTXOA 24/2018  
URTARRILA 27/2019

Erakusketa museoaren bilduman oinarrituta dago, eta Pariseko Archives Balenciagaren laguntza dauka.